



motorola  
W377/W372

**Bizkor hasteko gida**

# Hasiera

## *SIM txartela eta bateria jartzea*

1



2



3



4



5



6



# Hasiera

## *Bateria kargatzea*

Bateria berriak ez dira guztiz kargatuta egoten. Telefonoko bateria kargatzeko, konektatu kargagailua telefonora eta korrante elektrikora.




Kargatzez amaitzen denean, pantailan **Karga osatu da** bistaratuko da.

Kargatzeari eta bateriaren iraupenari buruzko aholkuak jakiteko, ikus bateriaren Iradokizunak atala.


# Hasiera

## *Telefonoa piztea eta itzaltzea*

Sakatu  hainbat segundoan edo pantaila itzali edo piztu arte.




## *Deitzea*

Sartu telefono-zenbaki bat eta sakatu 




## *Dei bati erantzutea*

Telefonoak jotzean edo dar-dar egitean, ireki tapa edo sakatu 



## *Deia bukatzea*

Sakatu 



# Oinarrizko kontzeptuak

## Telefonoa





**Oharra:** Baliteke zure telefonoa ez izatea irudikoaren berdin-berdina. Tekla guztien kokapena eta funtzioak berdinak dira, baina sekuentzia batzuk desberdinak izan daitezke, zerbitzu-hornitzailearen arabera.


# Oinarrizko kontzeptuak

## Menuak

- ❶ Sakatu  **Menua** irekitzeko.



- ❷ Sakatu  gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, menuko aukera bat nabarmentzeko.




- ❸ Sakatu **Aukeratu** nabarmendutako aukera hautatzeko.



# Oinarrizko kontzeptuak

## *Larrialdi-deiak*

### **Larrialdi-zenbakira deitzeko:**

Sakatu teklatuko teklak larrialdi-zenbakia markatzeko, eta, ondoren,  deitzeko.



Zure zerbitzu-hornitzaileak larrialdi-telefono bat edo bat baino gehiago programatuko ditu (adibidez, 112); horietara edozein unetan dei dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean edo SIM txartela sartu gabe dagoenean ere.

**Oharra:** larrialdietako zenbakiak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Baliteke leku batzuetan ez funtzionatzea aurrez programatutako larrialdi-zenbakiak edo -zenbakiek. Batzuetan ezin da larrialdi-deirik egin, sareko edo inguruko arazoak edo interferentziak direla eta.

# Oinarrizko kontzeptuak

## *Ahots-postontzia*

Joan hona:  >  Mezuak > Ahots-postontzia

## *Azken deiak*

Joan hona:  >  Azken deiak

**Zuzeneko sarbidea:** sakatu  pantaila nagusian, egindako deien zerrenda ikusteko.



# Oinarrizko kontzeptuak

## *Egoeraren adierazleak*

Egoeraren adierazleak pantaila nagusiko goiko aldean bistaritzen dira.



# Oinarrizko kontzeptuak



## Menuen diagrama\*\*\*



### Gida



### Azken deiak

- Jasotako deiak
- Markatutako deiak
- Koadernoia
- Deien iraup.
- Datuen orduak
- Datuen edukia



### Mezuak

- Sortu
- Sarrera ontzia
- Zirriborria
- Irteerako ontzia
- Ohar azkarrak
- Ahots-postontzia
- Bilatzailearen mezuak
- Info. zerb.
- MMS txantiloia



### Bulegoko tresnak

- Kalkulagailua
- Nire menua
- Alarma
- Kronometroa
- Txata
- Markatze zerbitzua
- STK aplikazioak \*
- Egutegia
- Argia



### Jokoak eta aplik.



### Websarbidea



### Multimedia

- Kamera \*\*
- Irudiak
- Soinuak
- FM irratia



### Pertsonalizatu

- Hasierako pantaila
- Menu nagusia
- Kolore ezarpena
- Ongi etorria:
- Horma-papera
- Pantaila-babesa
- Markatze azkarra



### Ezarpenak

- Tonu estiloa
- Deia birbidali
- Sarrera deien konfigur.
- Hasierako konfigur.
- Telef. egoera
- Entzungailua
- Sarea
- Segurtasuna
- Aurrezkenbaki erraza \*
- Argia
- Bluetooth-a

\* Aukerako funtzioak.

\*\* W377 mugikorrean bakarrik.

\*\*\* Diseinu hau menu estandar nagusiarena da. Telefonoaren menua zertxobait alda daiteke.

# Osagarriak

Bluetooth® H700 entzungailuak



Bluetooth® H670 entzungailuak



P790 kargagailu eramangarria



Osagarri horiek eta beste batzuk dituzu gune honetan: [www.motorola.com](http://www.motorola.com)

Zure telefonoari buruzko informazio gehiago nahi [baduzu](http://www.motorola.com/support), ikus: [www.motorola.com/support](http://www.motorola.com/support)




6803630F26

# Pertsonalizatzea

## *Txirrina aldatzea*

**Txirrinaren bolumena aldatzeko:**

**Joan hona:**  >  **Ezarpenak** > **Tonu estiloa** > **Estiloa:** *Mota*

- 1** Joan **Tonuaren bolumena** aukerara eta sakatu **Aldatu**.
- 2** Sakatu  eskuinera edo ezkerreara, bolumena igotzeko edo jaisteko.

**Txirrina aldatzeko:**

**Joan hona:**  >  **Ezarpenak** > **Tonu estiloa** > **Mota**

Mugitu nahi duzun estilora eta sakatu **Aukeratu**.

 **Tonu ozena**

 **Dardara**

 **Dardara eta gero tonua**



 **Tonu isila**

 **Bibratu eta tonua**

 **Isilik**

# Pertsonalizatzea

## *Pantaila-babesa jartzea*

**Joan hona:** Sakatu  >  Pertsonalizatu > Pantaila-babesa

Joan irudiraino eta sakatu **Aukeratu**.



Funtzio honek pantaila babesten laguntzen du, ez bateria aurrezten. Bateriaren iraupena areagotzeko, desaktibatu pantaila-babesa.

## *Horma-papera jartzea*

**Joan hona:** Sakatu  >  Pertsonalizatu > Horma-papera

Joan irudiraino eta sakatu **Aukeratu**.

# FM irratia

## *Irratia entzutea*

- 1 Konektatu 2,5 mm-ko entzungailuak telefonora.

**Oharra:** Irratiak ez dabil entzungailurik gabe, telefonoak entzungailuen kablea erabiltzen baitu antena gisa.


- 2 Sakatu  >  **Multimedia > FM irratia.**

- 3 Sakatu **Aukeratu**. (ezkerreko funtzio-tekla).

**Irrati-kanal bat sintonizatzeko**, sakatu  ezkerrera edo eskuinera.

**Lehendik dauden irrati-kanalak bilatzeko**, luze sakatu  ezkerrera edo eskuinera.

**Bolumena doitzeko**, sakatu  gora edo behera.

**Irratia itzaltzeko**, sakatu  > **Itzali** edo deskonektatu entzungailuak.

# Gida

## *Gidan sarrerak gordetzea*

Sartu telefono-zenbakia hasierako pantailan.

- 1 Sakatu **Gorde**.
- 2 Sakatu **Aldatu, Izena** idazteko eremua irekitzeko.
- 3 Idatzi gidako sarrera berriaren izena.
- 4 Sakatu **Ados** sarrera gordetzeko.

## *Gidako zenbakietara deitzea*

Joan hona:  >  Gida

Joan deitu nahi duzun sarrera eta sakatu .

# Kamera

## *Argazkiak ateratzea*

**Joan hona:** Sakatu  >  **Multimedia > Kamera**

- 1 Fokatu kameraren objektiboarekin argazkia ateratzeko objektua eta sakatu **Argz. Ater** argazkia ateratzeko.
- 2 Sakatu **Gorde** argazkia gordetzeko edo **Baztertu** ezabatzeko.

## *Argazkiak ikustea*


**Joan hona:** Sakatu  >  **Multimedia > Kamera >  >**  
Irudietara joan



# Testu-mezuak

## *Testu-mezuak bidaltzea*

**Joan hona:** Sakatu  >  **Mezuak > Sortu > SMS/EMS**

- 1** Idatzi mezua eta sakatu **Ados**. Testua idazteko moduan, sakatu  iTap®-era (iragarpen-testua), Tap zabaldua, zenbakizkora edo sinboloetara aldatzeko.
- 2** **Bidali**, idatzi mezua bidali nahi diozun telefono zenbakia eta sakatu **Ados**.
- 3** Sakatu **Bidali** mezua bidaltzeko prest dagoenean.

AHOLKUA

Bidali mezua 5 kliketan. Pantaila nagusian, sakatu nabigazio-teklako ezkerreko gezia, zuzenean testu-mezuak editatzeko aukerara sartzeko. Idatzi testua eta **Bidali honi** sakatu. **Bidali** pantailan, hautatu edo idatzi mezua bidali nahi diozun zenbakia. Gero, sakatu **Bidali**. Erraz-erraza da.

# Bluetooth-a®

## *Entzungailuak edo autoko esku kit bat nola erabili*


Bluetooth entzungailu bat edo esku librekoarekin deiak egiteko autoko kit bat konekta dakizkioke telefonoari.


Arreta galaraz dezake auto gidatzean telefono mugikorra erabiltzeak. Utzi deia bertan behera ezin bazara kontzentratu gidatzen ari zarela. Bestalde, baliteke eskualde batzuetan debekatuta edo murriztuta egotea haririk gabeko gailuen eta haien osagarrien erabilerari. Bete, beti, produktu horien erabilerari dagozkion legeak eta araudiak. Telefonoa esku libreko gailu bati konektatu aurretik, bagiratu gailua aktibatuta eta sinkronizazio-eko esteka-moduan dagoen (ikus gailua erabiltzeko eskuliburua). Adi bakoitzeko gailu batera bakarrik konekta daiteke telefonoa.

**Zoaz hona.**  >  konfigurazioa > Bluetootha > Esku libreak > Bilatu gailua

# Bluetooth-a®

Telefonoak bilatutako gailuen zerrenda bistaratuko du telefonoak.

- 1 Mugitu zerrendako gailuen artean, eta sakatu  edo **Aukeratu** gailura konektatzeko.
- 2 Behar izanez gero, sartu gailuaren pasahitza (adibidez, 0000) eta sakatu **Ados** tekla.

Telefonoa konektatuta dagoenean, Bluetooth-aren  adierazlea azalduko da hasierako pantailan.

# Bateria erabiltzea eta haren segurtasuna

---

- **Motorola markako bateriak eta kargagailuak erabiltzea aholkatzen du Motorolak.** Bermean ez dira sartzen Motorola markakoak ez diren bateriek eta kargagailuek eragindako kalteak. **Kontuz:** homologatuta ez dagoen bateria edo kargagailu bat erabiltzeak suteak, leherketak, ihesak edo bestelako arriskuak eragin ditzake. Bateria behar bezala ez erabiltzeak edo kaltetutako bateria bat erabiltzeak suteak, leherketak edo bestelako arriskuak eragin ditzake.
- **Arreta jarri haurrak bateria erabiltzen ari direnean.**
- **Garrantzitsua:** homologatutako bateriekin ondo funtzionatzeko diseinatuta daude Motorola telefono mugikorrek. Pantailan **“bateria baliogabea”** edo **“ezin da kargatu”** mezua agertzen bada, eman pauso hauek:
  - Kendu bateria, eta egiaztatu Motorolako ekipo originalaren holograma duela.
  - Hologramarik ez badu, bateria ez dago homologatua;
  - Holograma badu, aldatu bateria eta saiatu berriz kargatzen;
  - Mezua berriz agertzen bada, jar zaitez harremanetan Motorolako zerbitzu-zentro baimendu batekin.
- Baliteke bateria berriek edo denbora luzez gordetako bateriek denbora gehiago behar izatea kargatzeko.
- **Kargatzeari buruzko neurriak:** bateria kargatzen ari zarenean, eduki bateria giro-temperaturan. Ez **utzi** inoiz bateriak 0 °C (32 °F) baino tenperatura baxuagoetan edo 45 °C (113 °F) baino altuagoetan, kargatzen ari zarenean. Hartu beti zure mugikorra autoa uzten duzunean.
- Gorde bateria leku fresko eta lehorrean.
- Normala da bateriaren bizitza murriztea denbora igaro ahala eta maizago edo denbora gehiagoz kargatu behar izatea.
- **Saia zaitez bateriari eta mugikorrari kalterik ez eragiten.** Ez desmuntatu, ireki, zapaldu, tolestu, desitxuratu, zulatu, marratu edo urperatu bateria eta telefono mugikorra. Ez dadila bateria edo telefono mugikorra erori, batez ere leku gogorretan. Bateriak edo telefono mugikorrek kalte horietakoren bat jasan badu, eraman ezazu Motorolaren zerbitzu-zentro baimendu batera erabili aurretik. Ez saiatu kanpoko bero-iturri baten bidez lehortzen, adibidez, ile-lehorgailu edo mikrouhin-labe baten bidez.
- **Kontuz erabili kargatutako bateria,** batez ere poltsikoan, diru-zorroan edo metalezko objektuak gordetzeko beste poltsaren batean gordetzen duzunean. B metalezko objektuekin (bitxiak, giltzak edo kateak) kontaktuan jartzeak zirkuitu elektriko bat sor dezake (zirkuitulaburra), bateria gehiegi berotu daiteke, eta horrek kalteak edo zauriak eragin ditzake.

Bete herriko araudia erabilitako bateriak botatzeko garaian. Jarri harremanetan tokiko birziklatze-zentroarekin, bateria behar bezala botatzeko.



**Oharra:** Ez bota inoiz bateria sutara, lehertu egin baitaiteke. Telefonoa erabili aurretik, irakurri bateriaren segurtasunari buruzko informazioa “informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa” atalean.

Motorola, Inc, Consumer Advocacy Office,  
1307 East Algonquin Road, Schaumburg, IL 60196

www.hellomoto.com

Telefono mugikorren ezaugarri batzuk zure operadorearen aukeren eta sare-konfigurazioaren arabera dira. Bestetik, baliteke zure operadoreak ezaugarri horietako batzuk aktibatu ez izana eta/jedo sare-konfigurazioak funtzionalitatea mugatzea. Jarri beti zure operadorearekin harremanetan ezaugarri horien erabilgarritasunaz eta funtzionalitateaz informatzeko. Produktuaren ezaugarri, funtzionalitate eta bestelako zehaztasun guztiak, eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa, eguneratutako informazioan oinarrituta daude, eta gaur egun zehatzenak dira inprimatzeko unerako. Motorolak, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko eskubidea du.

MOTOROLA eta M logotipo estilizatua AEBko patenteen eta marka komertzialen bulegoan daude erregistratuta. Gainerako produktuen edo zerbitzuen izen guztiak beren jabeek dagozkie. Bluetooth marka komertzialak beren jabearenak dira eta Motorola, Inc.-ek lizentziarekin erabiltzen ditu. Java eta Javan oinarritutako gainerako marka guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira AEBn eta beste herrialdeetan. America Online, AOL, America Online & Design-en logoa, AOL & Design-en logoa eta triangeluaren logotipoa America Online, Inc.-en marka erregistratuak dira AEBn eta/jedo beste herrialde batzuetan. Instant Messenger eta Buddy List America Online, Inc.-en marka komertzialak dira. Microsoft Corporation-en marka komertzial erregistratuak dira Microsoft, Windows eta Windows Me; eta Windows XP, berriz, Microsoft Corporation-en marka komertziala da. Macintosh, Quicktime eta Quicktime-ren logotipoa Apple Computer, Inc.-en marka komertzial erregistratuak dira. iTunes Apple Computer, Inc.-en marka komertziala da, AEBetan eta beste herrialde batzuetan erregistratua. Eskubide guztiak erreserbatuta. Wireless Fidelity Alliance, Inc. © Motorola, Inc.-en ziurtatze-marka da **WiFi**. 2006.

### **Software-aren copyright-ari buruz oharra**

Eskuliburu honetan deskribatutako Motorolaren produktuek Motorolaren edo beste fabrikatzaile baten copyright-arekin babestutako softwareak eduki ditzakete erdieroalezko memorietan edo beste bitarteko batzuetan. AEBko eta beste herrialde batzuetako legeriak baimena ematen die Motorolari eta softwareen beste hornitzaile batzuei jabetza intelektualen eskubideek babestutako softwareen gainean eskubide eskusibo batzuk izateko, adibidez, babestutako softwareak banatzeko edo erreproduitzeko eskubidea. Beraz, debekatuta dago Motorola produktuetako software babestuetako elementuak aldatzea, atzeranzko ingeniartzako teknikak aplikatzea, banatzea edo erreproduitzzea, legeak baimentzen duenaren arabera. Gainera, Motorolaren produktuak eskuratuta ez da ematen, ez zuzenean, ez inplizituki, ez ezin ukatuzko ekintzen bidez, ez inolaz ere, lizentziarik, jabetza intelektualarekin edo Motorolaren edo beste edozein hornitzailearen patenteak duten patenteekin edo aplikazioekin, erabilera arrunteko lizentzia salbu. Lizentzia hori ez da eskusiboa, eta ez du produktu baten salmentan legeak aplikatzearen ondorioz eratorritako egile-eskubiderik.

Produktuaren zehaztapenak eta ezaugarriak aurrez abisatu gabe alda daitezkeen arren, ahalegina egingo dugu erabiltzaileen eskuliburuak etengabe egunera daitezzen eta produktuaren funtzioen aldaketak eskuliburu horietan jasotzeko. Baina, zure eskuliburuko bertsioak produktuaren funtsezko funtzioak behar bezala deskribatzen ez baditu, jarri gurekin harremanetan. Gure eskuliburuaren bertsio eguneratuak Motorolaren web guneko kontsumitzaileen atalean ikus ditzakezu: <http://www.motorola.com>

**Kontuz:** Irratidun telefono mugikorrean aldaketak egin badira eta aldaketa horiek Motorolaren onespenean idatzirik ez badute, erabiltzaileak baimena galduko du ekipoa erabiltzeko.

## Absortzio Espezifikokoaren Koefizienteari buruzko datuak

---

### **MODELO HONEK BETE EGITEN DITU IRRATI-UHINEK PERTSONENGAN DUTEN ERAGINAREN NAZIOARTEKO ARAUDIA**

Zure gailu mugikorra irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Irrati-uhinen eragina jasateko nazioarteko araudian finkatutako mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Arau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak garatu ditu eta pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna ziurtatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzte.

Araudi horiek Absortzio Espezifikokoaren Tasa (SAR) izeneko neurri-unitateak ibiltzen dute. Jendeak erabiltzen dituen mugikorretarako ICNIRPek ezarritako SAR muga 2 W/kg da, eta belarrian erabiliz egindako probatan gailu honek emandako SAR balio altuena 0,9 W/kg<sup>1</sup> da. Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, beste atal batzuetan ere erabil daitezke, adibidez gorputzean, erabiltzailearen gidaliburu honetan deskribatzen den bezala<sup>2</sup>. Kasu honetan, neurtu den SAR balio altuena 0,23 W/kg<sup>1</sup> da.

Gailuaren transmisioko potentzia maximoa erabilita neurtzen da SAR balioa; beraz, gailu hau baldintza arruntetan erabiltzen denean, lehen aipatutakoa baino SAR balio baxuagoa du. Hori gertatzen da gailuak potentzia-mailak automatikoki aldatzen dituelako, sarera konektatzeko balio minimoa erabiltzeko. Telefonoen artean SAR mailan desberdintasunak egon daitezkeen arren eta baldintza desberdinetan erabiltzen diren arren, guztiek betetzen dituzte esposizio segurua ziurtatzeko gobernuen eskakizunak. Kontuan izan modelo honetan egin daitezkeen hobekuntzek aldatu egin dezaketela geroko produktuen SAR balioa.

Hala ere, produktu guztiak araudi horien arabera egiten dira. Munduko Osasun Erakundeak berretsi du egindako azterketa zientifikoak ikusita ez dela beharrezkoa arreta berezirik hartzea gailu mugikorrek erabiltzeko. Horrez gain, adierazten dute esposizio-maila murrizteko deien iraupena murriz dezakezula edo "esku libreko kita" erabil dezakezula, telefono mugikorra burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko. Osasunaren Munduko Erakundearen web gunean (<http://www.who.int/emf>) edo Motorola, Inc.-en web gunean (<http://www.motorola.com/rfhealth>) duzu informazio gehiago.

1. Probak nazioarteko araudien arabera egin dira. Mugak segurtasun-tarte handia du, jendeari babes osagarria eman diezaion eta neurketetan edozein aldaketa kontuan izan dadin. Informazio osagarriaren barnean sartzen dira Motorolaren proben protokoloa, balorazio-prozedura eta produktu honetarako ziurgabetasun-marjina neurketan.
2. Ikus gorputzetik gertu erabiltzeari buruzko *Segurtasuna eta informazio orokorra atala*.



# Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun-deklarazioa



## ADOSTASUN-DEKLARAZIOA

1890/2000 araudia,

2005eko azaroaren 20koa

Erreferentzia

LV012/05/356393/D

Guk –Motorola Inc, US Highway N 45, IL 60048, AEB– gure erantzukizunaren baldintzapean aitortzen dugu produktu honek

Izena/Mota

Motorola W377/W372

Deskribapena

GSM 800/900/1800/1900. GPRS 12 mota GPRS 8 mota Irratidun telefono mugikorra.

Oharra

betetzen ditu:

- bete beharreko baldintzak eta 1999/5/EE zuzentarauko gainerako xedapen garrantzitsu guztiak
- Europako Batasuneko gainerako zuzentarau guztiak

IMEI: 350034/40/394721/9

**CE0168**

Type: MC2-41H14

Produktuaren onarpen zenbakia

Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke.

Produktu honek betetzen ditu arau-dokumentu edo -estandar hauek, batez ere, direktibaren 3. artikuluko baldintza espezifikokoak.

3.1.a artikulua

EN50360:2001, EN60950:2000

3.1.b artikulua

EN 301 489-01 V1.4.1:08.2002  
EN 301 489-17 V1 .1.1 :09.2000  
EN 301 489-07 V1. 2.1:08-2002

3.2 artikulua

ETSIEN301511V9.0.2 EN 300 328-2 V1.2.1

10 artikulua

Hitzarmenaren adostasun-prozesua eta V. eranskina goian aipatutako direktibaren oinarritzko baldintza guztiei aplikatu zaizkie, BABT0168 erabiliz atal jakinarazi gisa.

Lars S. Nielsen

Zuzendaria

Motorola GmbH

Husumerstrasse 251

D242941 Flensburg

Alemania

Telefonoa: +49 461 803 0

Faxa:+49 461 8031829

h.el.: rtte@motorola.com



(ordezkari baimenduaren sinadura)

Motorola Inc.-en idatzizko onarpenik gabe, dokumentu honek ez du baliorik izango homologazio- edo inportazio-froga gisa.

# Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

---

**Atal honek informazio garrantzitsua du zure telefono mugikorra modu seguruan eta eraginkorrean erabiltzeari buruz. Irakurri informazio hau zure telefono mugikorra erabili aurretik.\***

## Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Zure mugikorrak transmisore eta hartzaile bana ditu. Konektatuta dagoenean ("ON"), IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono mugikorraren bidez komunikatzen zarenean, zure deiaz arduratzen den sistemak zure telefonoak transmititzen duen potentzia-maila kontrolatzen du.

Motorola telefono mugikorra bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

## Funtzionamenduari buruzko neurriak

Zure telefono mugikorrak errendimendu egokia izan dezan eta gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, jarraitu beti jarraibide eta neurri hauei.

## Kanpoko antena zaintzea

Zure telefonoak kanpoko antena badu, erabili Motorolak emandako antena edo homologatutako beste antena bat bakarrik. Baimendu gabeko antenek, aldaketek edo erantsiek telefonoan kalteak eragin ditzakete eta/edo herrialde bakoitzean ezarritako legeak urra daitezke.

EZ eutsi kanpoko antenari telefonoa ERABILTZEN ari zarenean. Kanpoko antenari eusteak deiairen kalitatean eragin dezake, eta telefonoak behar baino potentzia-maila handiagoan funtzionatzea eragin dezake.

---

\* Dokumentu honetako informazioak 2006ko maiatzaren 1era arte argitaratu diren erabilera-eskuliburuetan dagoen segurtasunari buruzko informazio orokorra ordeztzen du.

## Produktua erabiltzea

Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefonoa telefono finkoak erabiltzen dituzun bezalaxe.

Telefonoa soinean baduzu, jarri beti Motorolak emandako eta homologatutako euskarri, zorro, kutxa edo tresna batean. Motorolak homologatutako edo emandako gorputz-osagarriren bat erabiltzen ez baduzu, ziurtatu telefonoa eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ko distantzian daudela transmititzen ari denean.

Telefonoaren datu-funtzioren bat erabiltzen baduzu, kable-osagarriekin edo hori gabe, jarri telefono mugikorra eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra.

Motorolak eman edo homologatu gabeko osagarriak erabiltzeak IM energiaren eraginaren arauetan ezarritako mugen gainetik egotea eragin dezake. Motorolak emandako eta homologatutako osagarri-zerrenda bat duzu [www.motorola.com](http://www.motorola.com) web orrian.

## IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

Ia gailu elektroniko guztiek izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi babestuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude. Kasu batzuetan, zure telefono mugikorrek interferentziak sor ditzake beste gailu batzuekin. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu:

- Ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar,
- Jasotako interferentziak onartu behar ditu, baita nahi ez diren operazioak eragin ditzaketenak ere.

## Interferentzia-arazoak saihesteko, jarraitu urrats hauei

Itzali telefonoa hala adierazten duten oharrak dauden lekuetan. Leku horiek kanpoko IMen energiarekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzen dituzten ospitaleak edo instalazio sanitarioak izan daitezke. Hegazkinetan, itzali gailu mugikorra tripulazioak hala adierazten duen guztietan. Gailuak hegaldietarako moduren bat edo antzeko ezaugarriren bat badu, kontsultatu tripulazioari erabil dezakezun.

## Taupada-markagailua

Taupada-markagailua baldin baduzu, galdetu zure medikuari gailu hau erabili aurretik. Taupada-markagailua duten pertsonak neurri hauek hartu behar dituzte:

- Telefonoa piztuta dagoenean ("ON"), taupada-markagailutik 20 zentimetrora baino gehiagora eduki behar dute BETI.
- INOIZ EZ dute telefonoa bular pareko poltsikoan eraman behar.
- Taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarria erabili behar dute, interferentziak izateko aukera murrizteko.
- Telefonoa berehala itzali behar dute, arazoiren batengatik interferentziak sortzen ari dela susmatzen badute.

## Entzuteko gailuak

Zenbait telefono mugikor digitaletan interferentziak sor ditzakete entzuteko zenbait aparaturekin. Horrelako interferentziak sortuz gero, mesedez, kontsultatu entzuteko gailuaren fabrikatzaileari edo zure medikuari arazoari konponbideren bat aurkitzeko.

## Beste gailu mediko batzuk

Beste gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, kontsultatu zure medikuari edo gailuaren fabrikatzaileari IM energiaren aurka behar bezala babestuta dagoen ala ez jakiteko.

## Gidatzean kontuan hartu beharrekoak

Kontsultatu gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruz zure herrialdean dauden legeak. Bete itzazu beti.

Gidatu bitartean telefono mugikorra erabiltzen duzunean, gogoan izan hau:

- Kontuz gidatu eta jarri arreta osoa errepidean. Telefono mugikorrak erabiltzeak arreta galaraz diezazuke. Eten ezazu deia, arretaz gidatu ezin baduzu.
- Erabilgarri badago, erabili esku libreko funtzioa.
- Aldendu errepidetik eta gelditu ibilgailua dei bat egin edo jaso aurretik, egoerak hala eskatzen badu.

Gida honen bukaeran aurkituko duzun "Gidatzeko jardunbide egokiak" atalean eta/edo Motorolaren web orrian: [www.motorola.com/callsmart](http://www.motorola.com/callsmart).

## Erabilerari buruzko oharra

Egin kasu telefono mugikorrek gune publikoetan erabiltzearen inguruko seinale guztiei, hala non osasun-erakundeetan edo lehergaien detonazioguneetan.

## Airbaga duten ibilgailuentzat

Ez jarri telefono mugikorra airbaga irekitzen den lekuan.

## Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Lehergaiak egon daitezkeen inguruneak seinaleztatuak egon ohi dira, baina ez beti, eta barnean hartzen dituzte erregaiak hartzeko guneak –adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak–, erregaiak edo produktu kimikoak biltegitartzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak –hala nola, erregai-hautsa edo metal-hautsak– dauden eremuak.

Deskonektatu mugikorra lehergaiak egon daitezkeen inguruetara sartu aurretik. Ez utzi, instalatu edo kargatu bateriarik inguru horietan. Eremu horietan txinpartak sor daitezke, eta, horien ondorioz, leherketaren bat edo sua gerta daiteke.

## Hondatutako produktuak

Telefono mugikorra edo bateria uretan sartu badira, zulatu egin badira edo erorketa larriren bat jasan badute, ez **erabili** Motorolaren zerbitzu tekniko baimendu batera eramanez aurretik. Ez saiatu lehortzen kanpoko bero-iturri baten bidez, adibidez, mikrouhinen bitartez.

## Bateriak eta kargagailuak








Bitxiek, giltzek, metalezko kateek edo bestelako material eroaleek zure telefono mugikorraren bateria ukitzen badute, zirkuitu elektriko bat (zirkuitulaburra) gerta daiteke edo asko berotu daiteke, eta kalteak eragin diezazkioke pertsonari. Kontuz ibili kargatutako bateria bat erabiltzean, batik bat, patrikan, eskuko poltsan edo objektu metalikoak dituen beste nonbait sartzean. **Erabili beti Motorolaren jatorrizko bateriak eta kargagailuak.**

**Kontuz:** kalte pertsonalik egon ez dadin, ez bota bateria sutara.



TM

Bateriak, kargagailuak edo telefono mugikorak ikurrak izan ditzakete. Hau da ikurren esanahia:

Ikurra	Definizioa
	Segurtasun-informazio garrantzitsua adierazten du.
	Telefono mugikorra edo bateria ez dira sutara bota behar.
	Beharbada, bateria edo telefono mugikorra tokiko legeen arabera birziklatu behar dira. Kontsultatu tokiko agintari eskudunekin informazio gehiago lortzeko.
	Bateria edo telefono mugikorra ez dira zakarretara bota behar. <a href="http://www.motorola.com/recycle">www.motorola.com/recycle</a>
	Zure telefono mugikorak litio-ioizko bateria du.
	Bateria, kargagailua eta telefono mugikorra ez daitezela busti.
	Entzumenari kalte egin diezaioke musika edo bestelako soinuak entzungailuekin oso ozen entzuteak.

Elektrizitate-egokigailua da ekipoa deskonektatzeko gailua. Korrante-hartuneak ekipotik gertu egon behar du, eta erraz iristeko toki batean.

## Itotzeko arriskua

Telefono mugikorak edo haren osagarriak pieza desmuntagarriak izan ditzakete, eta horiekin ito egin daitezke haur txikiak. Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haur txikien eskueran.

## Beirazko osagaiak

Baliteke gailu mugikorreko osagai batzuk beiraz eginda egotea. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili gailu mugikorra zerbitzu tekniko gaitu batean beira aldatu arte.

## Epilepsia-krisiak edo zorabioak

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola bideo-jokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsoneri ere gertatzea. Epilepsia-krisirik edo zorabiorik izan baduzu edo horrelako familia-aurrekaririk baduzu, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolasean aritu edo mugikorraren argi keinukarien funtzioa erabili baino lehen (zure mugikorrak funtzio hori izanez gero). Sintoma hauetakoren izanez gero, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Gomendagarria da pantaila begietatik distantzia jakin batera izatea, gelako argiak piztea eta orduro 15 minutuko atsedena hartzea; oso nekatuta egonez gero, utzi gailua erabiltzeari.

## Errepikatzen diren mugimenduak

Errepikatzen diren ekintzak egitean, hala nola teklak sakatzea edo testu-karaktereak sartzeari hatzez, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Gailua erabiltzen ari zarela edo erabili ondoren ondoeza desagertzen ez bada, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana.



# FCCren oharra erabiltzaileentzat

---

**Adierazpen hau FCCren (Komunikazio Batzorde Federala) onespena duten produktu guztiei buruzkoa da (Comisión Federal de Comunicaciones). FCCren logoa eta/edo FCCren identifikazioa (FCC-ID: xxxxxx) dute aplikatu beharreko produktuek etiketan.**

Motorolak ez du onartu erabiltzaileak gailu honetan egin dezakeen aldaketarik. Edozein aldaketak bertan behera utz dezake ekipoa erabiltzeko erabiltzaileari emandako baimena. Ikus 47 CFR, 15.21 sek. Gailu honek FCCren araudiko 15. atalean ezarritakoa betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar eta (2) gailu honek jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketena barne. Ikus 47 CFR, 15,19 (3) sek. Zure gailu mugikorrek datuak transferitzeko USB konektorea badu, edo ordenagailu batera konektatzeko periferikotzat jotzen bada, B motako gailua izango da, eta adierazpen hau aplikatuko zaio:

Ekipo honek proba bat gainditu du eta ikusi da B motako gailu digitaletarako ezarritako mugak betetzen dituela, FCCren Araudiko 15. atalean ezarritakoaren arabera. Muga horien helburua da arrazoizko babesa ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurka. Ekipo honek irrati-maiztasunaren energia sor, erabil eta igor dezake, eta jarraibideen arabera instalatzeko eta erabiltzen ez bada, interferentzia kaltegarriak sor ditzake irrati bidezko komunikazioetan. Hala ere, ezin da bermatu instalazio jakin batean interferentziarik sortuko ez denik. Ekipo honek irrati edo telebista jasotzeko garaian interferentzia kaltegarriak sortuko balitu (ekipoa itzali eta berriro piztuta ikus daiteke hori), erabiltzaileari aholkatzen zaio interferentzia hori zuzen dezala aukera hauetako baten bidez:

- Antena hartzailearen orientazioa edo kokapena aldatu.
- Hartzailearen eta ekipoaren arteko tartea handitu.
- Ekipoa eta hartzailea korrante-hartuneen zirkuitu desberdinerara konektatu.
- Irrati/telebista gaietan aditua den banatzaileari edo teknikariari laguntza eskatu.

# OSASUNAREN MUNDUKO ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA (OMS)

---

Gaur egungo ikerketa zientifikoen arabera, ez da aparteko konturik izan behar telefono mugikorrek erabiltzean. Kezkatuta bazaude, IMaren eraginpean zure eta/edo zure seme-alabek denbora gutxiago pasatzera erabaki dezakezu, deien iraupena murriztuz edo esku libreko gailuak erabiliz –telefono mugikorra burutik eta gorputzetik urrun izateko.

Iturria: Who. 193. informazio-oharra

Informazio gehiago: <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs193/es/>

## Birziklatzea ingurumena zaintzeko

---



Ikur hau Motorolaren produktu batean ikusten baduzu, ez bota etxeko zakarretara.

## Telefono mugikorrek eta osagarriak birziklatzea

---

Ez bota telefono mugikorrek eta osagarri elektronikoak, adibidez, kargagailuak eta entzungailuak, etxeko zakarretara. Herrialde batzuetan badaude ekipo elektronikoak biltzeko sistemak. Jarri harremanetan zure herrialdeko agintariekin xehetasun gehiago eskuratzeko. Biltzeko sistema horiek erabilgarri ez badaude, nahi ez dituzun telefono mugikorrek eta osagarri elektronikoak itzuli zure herrialdeko Motorolaren edozein zerbitzu-zentrorara.

# **BERME MUGATUARI BURUZKO INFORMAZIOA**

---

Motorolak jatorrizko erosleari bermatzen dio Motorola banatzaile baimendunari erosi dizkion komunikatzaile pertsonala eta osagarriak (hemendik aurrea, "Produktuak") fabrikatzeko unean indarrean aplika daitezkeen Motorolaren zehaztapenekin bat datozela eta [1] urteko Berme estandarra dutela Produktua/k erosi den /ziren egunetik hasita (hemendik aurrera "Mugatutako Bermearen Epea"). Produkturen bat aplikatu behar zaizkion zehaztapenekin bat ez badator, akatsa materialean, akaberan edo adostasun faltan antzeman den egunetik hasi eta bi (2) hilabeteko epean jakinarazi behar zaio Motorolari, betiere Mugatutako Bermearen Epearen barnean, eta Produktua hurbilen dagoen Motorolaren Zerbitzu Tekniko Baimendu batera eramango da berehala. Motorola ez da Motorolak zuzenean egin ez duen Produktuarekin lotutako deklarazioen eta saltzaileari dagozkion berme-betebeharren erantzule izango.

Produktu honekin batera Motorolaren telefono bidezko arreta-zerbitzuen zenbakien zerrenda doakizu.

Mugatutako Bermearen Epean, Motorolak, nahierara eta kargu gehigarririk gabe, kalte-ordain berezi gisa, Berme honekin bat ez datorren Produktua konponduko edo ordezkatzeko du; bestela, jatorrizko erosleak Produktuagatik ordaindu duen erosketaprezioaren zenbatekoa itzuliko dio, baina murriztuta, hartu zenetik Produktuari eman zion erabilera kontuan hartuta. Mugatutako Bermearen Epea amaitzean iraungiko da Berme hau ere. Hau da Motorolaren Komunikagailu pertsonalerako eta horren osagarrietarako berme osoa eta bakarra, eta bestelako Bermeak edo zehaztapenak eta baldintzak –argiak zein isilekoak– ordeztzen ditu. Motorolak kanpoan uzten ditu gainerako bermeak eta zehaztapenak eta baldintzak, argiak edo isilekoak –adibidez, egokitasuna eta kalitate ona–, produktua kontsumitzaile-baldintzetan erosi ez bada.

Motorola ez da inoiz izango erosketa-prezioa gaintzen duten kalteen edo informazio-galeraren erantzule, ezta Produktua erabiltzeagatik edo hura erabiltzeko aukerarik ez izateagatik sortutako intzidentzia-kalteen\*, kalte berezien edo zeharkakoen erantzule ere, legeak kanpoan uzteko aukera ematen dion neurrian.

Mugatutako Berme honek ez dio eragiten kontsumitzaile gisa izan daitekeen legez ezarritako inongo eskubideri, adibidez, kalitateari eta egokitasunari buruzko adostasuna (horretarako, mota bereko produktuak erabilera- eta zerbitzu-baldintza normaletan erabiltzen dira), ezta Produktuen saltzailearen kontra salerosketa-kontratuak sortzen dituen eskubideei ere.

## **NOLA LORTU ZERBITZU BERMEDUNA?**

Kasu gehienetan, Motorolaren Komunikatzaile Pertsonala eta osagarriak saldu eta/edo instalatu dizkizun Motorolaren banatzaile baimendunak egingo die aurre erreklamazioei Bermepean eta/edo hark emango dizu zerbitzua Bermepean. Además, si desea obtener más información para obtener el servicio de garantía también puede ponerse en contacto bien con el departamento de servicio al cliente de su proveedor de servicios, o bien con el Centro de Llamada Motorola llamando al +34 902100 077.

## **ESKAERA**

Zerbitzua bermepean eskatzeko, Komunikatzaile Pertsonala eta/edo osagarriak eraman behar dituzu Motorolaren Zerbitzu Tekniko Baimendu batera, dagokion konfigurazioarekin eta Motorolak emandako bilgarri originalekin. Ahal dela, ez utzi osagarriak; adibidez, SIM txartelak. Produktua Zerbitzu Tekniko Baimendunera bidaltzean edo eramatean, etiketa bat izango du produktuak informazio honekin: zure izena, helbidea eta telefono-zenbakia eta Telefonía Mugikorreko zure operadorearen izena eta arazoaren azalpena. Ibilgailuren batean instalatuz gero, Komunikatzaile Pertsonala instalatuta duen ibilgailu hori egiaztapen hori egiteko gai den Zerbitzu Teknikoa Baimendura eraman behar da, edozein arazo aztertzeak ibilgailuko instalazio osoa berrikustea ekar baitezake.

---

\* barne hartzen ditu, mugarik gabe, erabilera-galera, denbora-galera, informazio-galera, eragozpenak, galera komertziala, sortutako kalteak, eskuratutako diren irabaziak edo aurrezki-galera.

Zerbitzua Bermepean izateko eskubidea izateko, zure erosketa-faktura edo ziurtagiri baliokidea aurkeztu behar duzu, non erosketa-datak agertu behar baitu. Komunikagailuak argi erakutsi behar du jatorrizko serie elektroniko bateragarriaren zenbakia (IMEI) eta serie mekanikoaren zenbakia [MSN], erreferentzia-zenbaki gisa. Informazio hori Produktuarekin batera ematen da. Ziurtatu konponketa eta zerbitzu guztiak Motorolaren Zerbitzu Tekniko Baimendu batek egin dituela, Motorola Zerbitzuan finkatutako baldintza guztien arabera. Kasu batzuetan, Zerbitzu Tekniko Baimenduek Produktuen mantentze-lanei buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango dizute. Beraz, garrantzitsua da aurreko konponketei buruzko informazioa gordetzea eta horiek eskura izatea, mantentze-lanei buruzko edozein galdera egiten dizutenerako.

## BALDINTZAK

Mugatutako Berme hau ezingo da aplikatu Produktuan agertzen diren modeloa edo serie-zenbakiak ezabatuta, kenduta, aldatuta badaude, irakurtzeko moduan ez badaude edo Komunikagailuaren etiketa nolabait aldatuta badago. Motorolak beretzat gordetzen du Berme barruan dagoen doako zerbitzu bat ez emateko eskubidea, baldin eta eskatutako dokumentazioa ematen ez bada, informazioa nahikoa ez bada, irakurri ezin bada edo fabrikako erregistroekin bat ez badator.

Hauek egin daitezke –Motorolak erabakiko du– gailua konpontzeko: softwarea eguneratu, arazoak dituzten piezen edo plaken ordeztu funtzio bera duten piezak edo plakak jarri –konponutakoak edo berriak–. Ordeztu diren osagarriak, piezak, bateriak edo plakak bermepean egongo dira jatorrizko Bermearen epean. Mugatutako Bermearen Epea ez da luzatuko. Ordeztu diren Komunikagailu Pertsonalaren jatorrizko osagarriak, bateriak, piezak eta ekipoa Motorolarentzat izango dira. Motorolak ez du bermatzen produktuen, osagarrien, baterien edo piezen instalazioa, mantentze-lana edo berrikusketa.

Motorola ez da erantzule izango, inola ere, Motorolak eman ez duen eta Produktuetan sartuta dagoen edo haiekin lotuta dagoen ekipoa laguntzaileek sortutako arazoena edo kalteena, edo Motorola ekipoa ekipoa laguntzailearen batekin duen funtzionamenduarena, kontuan hartu gabe Berme honetako ekipoa. Produktua Motorolak eman ez duen ekipoa laguntzaile edo periferikoren batekin erabiltzen denean, ez da Produktua/periferikoa konbinazioaren funtzionamendua bermatzen, eta ez dio Bermearen erreklamazioei aurre egingo Produktua konbinazio horrekin erabiltzen bada eta Motorolak Produktuak akatsik ez duela zehazten ez badu.

Motorola ez da Motorolarenak diren edo Motorolarenak ez diren ekipoez jasandako kalteen erantzule egingo, kalteak Komunikagailu Pertsonala, osagarriak, software-aplikazioak eta periferikoak (alegia, mugarik gabe, bateriak, kargagailuak, egokigailuak eta elikatze-iturriak) erabiltzeagatik sortu badira, eta osagarri, software-aplikazio eta periferiko horiek Motorolak fabrikatu eta eman ez baditu.

## ZER EZ DA SARTZEN BERME MUGATUAN?

Mugatutako Berme honek ez du baliorik, baldin eta akatsak kalteek, erabilera desegokiak, aldaketek, arduragabekeriak edo hutsegiteak eragin badituzte, eta, aldaketen edo konponketen kasuan, haiek baimenik gabeko pertsonen egin badituzte. Adibide gisa, Berme honi dagokionez, Berme honetan ez dira sartzen akats edo kalte hauek:

- 1 Produktua normal edo ohi den bezala erabili ez izanagatik sortutako akatsak edo kalteak.
- 2 Erabilera okerrak, iturri bateraezinekin konektatzeak, istripuek edo axolagabekeriak sortutako akatsak edo kalteak.
- 3 Egiaztatze-lanek, erabiltzeak, mantentze-lanek, instalazio edo doitze desegokiak, baimenik gabeko software-aplikazioek edo edozein motatako aldaketek eragindako akatsak edo kalteak.
- 4 Antenak haustea edo haiei kalteak eragitea, materialek edo akaberako akatsek zuzenean eragindakoak izan ezik.
- 5 Motorolak desmuntatu edo konpondu ez dituen produktuak, errendimenduan kalteak eragiten badituzte edo Bermepeko erreklamazioak egiaztatzeko ikuskapen egokia egitea edo probak egitea eragozten badute.
- 6 Operadorearen telefonia mugikorraren sistemaren irismena, estaldura, erabilgarritasuna eta zerbitzu- edo funtzionamendu-mailak direla-eta sortutako akatsak edo kalteak.
- 7 Hezetasunak, likidoek edo elikagaiek eragindako akatsak edo kalteak.
- 8 Produktuaren kontrol-unitateko harileko kableak behartuta edo txartel modularra hautsita dutenak.
- 9 Bezeroak erabilera normalean urratutako edo kalteak eragindako plastikozko gainazalak eta gainerako kanpoko piezak.
- 10 Larruzko ontziak (haien fabrikatzaileek bestelako bermeak hartzen dituzte haien gain).
- 11 Aldi baterako alokatutako produktuak.

12 Aldizkako mantentze-lanak eta erabilera eta higadura arrunta dela-eta piezak konpontzea edo ordezte.

**Oharra:** Deitzeko denbora, deiak jasotzeko/egiteko egoeran pasatutako denbora eta zure Komunikagailu Pertsonalarentzako berriz karga daitekeen Motorola bateriaren bizi-ziklo osoa erabilera-baldintzen eta sarearen konfigurazioen arabera izango dira. Kontsumo-produktua den heinean, zehaztapenek adierazten dute Motorola Komunikagailu Pertsonalak errendimendu egokia izan dezakeela erosketa-datatik sei hilabete bitartean eta (200) aldiz kargatu arte (Errendimendu Denbora Hobeza). Motorolaren berriz kargatzeko baterien Bermea bertan behera geratuko da baldin eta (i) bateriak kargatzeko, Motorolak homologatuta dituen kargagailuak –bateria kargatzeko zehaztutakoak– ez bezalakoak erabiltzen badira, (ii) bateriaren zigiluren bat hautsita badago edo aldaketa-arrastoak baditu, eta (iii) bateria ekipo edo zerbitzuren batean erabili bada edo horiek ez badira bateria horri dagozkion Komunikagailu Pertsonalenak. Erabilerak eta higadurak Produktuaren osagaiei eragin diezaiekete, baita karkasarekin, pinturarekin, muntatzearekin eta azpimuntatzearekin, pantailarekin eta teklaturekin eta Produktuaren beraren zati ez diren osagarri guztiekin lotutako arazo mekanikoak ere, horien baldintzen eta ohituren arabera. Kontsumitzen diren artikuluen –adibidez, baterien– erabileraren eta higaduraren ondorioz sor daitezkeen akatsak eroslearen ardura izango dira Errendimendu Denbora Hobeza kanpo, produktuaren eskuliburuan aipatzen den bezala; beraz, Motorolak ez du Bermerik emango artikuluen horiek doan konpontzeko.

## GRABATUTAKO DATUAK

Mesedez, idatzi Produktuan gordetako datu guztiak (adibidez, izenak, helbideak, telefono-zenbakiak, erabiltzaile- eta sarbide-kodeak, oharrak eta abar) Produktua konpontze-zerbitzuan utzi aurretik; izan ere, datu horiek ezaba edo honda daitezke konpontze-prozesuan. Mesedez, Produktuan materialen bat deskargatu baduzu (adibidez, dei-tonuak, doinuak, pantailako marrazkiak, pantaila-babesak, jokoak eta abar), horiek ezabatu egin daitezke konpontze- edo probatze-prozesuan. Motorola da kalte horien arduradun. Konpontze- edo probatze-prozesuak ez die eragingo Motorolak zure produktuan instalatutako materialei.

## **SARTZEN EZ DIREN KONPONKETAK**

Bermearen epetik kanpo Produktua konpontzeko eskatzen badiozu Motorolari edo akatsa Bermearen barruan ez badago, Motorolak konponketa horiek egin ditzake edo hirugarren baimendu bati eska dakioke hori egiteko. Konponketa horiek zuk zeuk ordaindu beharko dituzu.